



Irailaren 7an, ikasle berriei harrera egiteko jardunaldia egin zen

Ikasturtea hasi aurreko ostegunean, Fakultateko Areto Nagusira dei egin zitzaizkien, harrera ekitaldia egiteko. Bi saiotan egin zen ekitaldia: lehenengoa, 10:00etan, euskaraz, eta bigarrena, 11:30ean, gaztelaniaz. Dekanoa izan zen bi saioetako buru, eta Akademia Antolakuntzako eta Graduondoko dekanordeak eta Euskara eta Eleaniztasuneko dekanordeak ere parte hartu zuten. Harrera jardunaldiaren helburu nagusia izan zen ikasleei etorkizunean Fakultatean izango duten jardura akademikoarekin lotutako hainbat alderdiri buruzko informazioa ematea.

Hasteko, ikastegia aurkeztu zitzaizkien, eta Fakultateko guneak non dauden azaldu (ikasgelak, liburutegia, administrazio zerbitzuak, idazkaritza eta dekanotza).

Ondoren, beren ikasketetarako garrantzitsuen diren kontuak azaldu zitzaizkien, besteak beste egutegi akademikoa, irakaskuntza motak eta horien plangintza eta ordutegiak, eta, horrez gain, horiek nola interpretatu irakatsi zitzaizkien.

Ikastegian egoteko arauak zein ziren ere azaldu zitzaizkien, eta Fakultatean ematen diren graduak lortzeko ezarri-

ta dagoen hizkuntza eskakizuna bete behar dutela ere jakinarazi zitzaizkien.

Gogorarazi zitzaizkien ikastegiko webgunea baliagarria dela kontu horiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero eta administrazio edo akademia kontuei buruzko edozein zalantza izanez gero. Edonola ere, azpimarratu zen dekanotza taldeko kide guztiak haien esanetara dardela edozein zalantza, eskaera edo kexari erantzuteko.

Ikastegiko segurtasun bideoa eta liburutegi zerbitzua aurkeztu zitzaizkien, baita Erasmus programa ere, Na-

zioarteko Harremanetako eta Mugikortasuneko dekanordearen eskuetik, eta gogorarazi zitzaizkien komeni dela gutxienez ingeleseko B2 maila izatea.

Ikasle Kontseiluaren eta haren oinarritzko funtzioen berri ere eman zitzaizkien. Halaber, gogorarazi zitzaizkien ikasleen hainbat elkarte daudela.

Azkenik, azaldu zitzaizkien erabilgarria izango zaiela Ekonomisten Euskal Elkargoa, eta gure ikastegian graduatutako ekonomialari batek hitzaldi labur bat eman zien.

Tecnalia Gelaren 17-18 ikasturteko lehenengo topaketa

2017ko urriaren 4an, Tecnalia Gelako 2017-2018 ikasturteko lehen topaketa egin zen, eta Fakultateko eta Tecnaliako ikertzaileek lan ildoak trukatzeko eta lankidetzako arloak zehazteko aukera izan zuten. Hala, zenbait jarraibide ezarri zituzten MALak egiten laguntzeko eta ikerketa bateratuak egiteko aukera sakontzeko.

2012an, Ekonomia eta Enpresa Fakul-

tateak eta Tecnaliak, Nazioarteko Bikaintasun Campusaren harira, Ekonomia eta Berrikuntzaren Kudeaketa Gela sortu zuten ikerketaren bikaintasunean eta ezagutzaren transferentzian aurrera egiteko aukera ematen duten lotura egonkorak lortzeko. Orduz geroztik, ekintza bateratuak egin dituzte, hala nola MALen zuzendaritza partekatua.





XVIII WORKSHOP ECRI

Aurten, XVIII WORKSHOP ECRI (www.ehu.es/ecri) egin da, eta Turingo Unibertsitateko irakasle Maurizio Cisi irakaslea izan zen gonbidatu. Balio Sozialari eta Iraunkortasun Balantzei buruz hitz egin zigun hark.

Illo horretan, Cisi irakasleak azaldu zuen beharrezkoa dela erakundearen emaitza ekonomiko eta finantzarioa baino adierazten ez duten Urteko Kontuetan gizarte eta ingurumen informazioa txertatzea. Irakasle italiarrak interesa azaldu zuen Retolaza, San-Jose eta Ruiz-Roqueñi irakasleek 2016an Springer argitaletxe prestigiodunean argitaratutako Social Accounting for Sustainability: Monetizing the Social Value izeneko liburuaren inguruan (<http://www.springer.com/la/book/9783319133768>), eta adierazi zuen egindako lana asko miresten zuela, uste baitu liburuan oso zehatz sintetizatzen dela sistema konplexu eta holistikoa, eta guztiz ados dagoela horrekin. Ez da liburu horren gaineko interesa adierazi digun bakarra; izan ere, EURAM European Academy of Management erakundearen Nazioarteko Kongresuan Liburu Onena izateko izendatu zuten.

Hitzaldia amaitzeko, erronka batzuk utzi zizkigun: besteak beste, metodologia metrikoki, estandar eta auditagarri bat garatzeko eta banku kredituak lortzeko analisisietan gizarte kontzeptuak

txertatzeko beharra.

Berlaratu zirenen hitzaldiak entzun ondoren, gaiari buruzko ideiak partekatu genituen. Horrez gain, Espainian eta Italian izandako esperientziak ere partekatu genituen. Amaitzeko, maiatzean BALIO SOZIALAREN MONETIZAZIOARI buruz martxan jarriko dugun MOOCari buruz.

(<https://miriadax.net/web/monetizacion-del-valor-social-integral-generador-las-organizaciones/inicio>) eta gure unibertsitatearen artean egin litezkeen elkarlanean hitz egin genuen. Workshopak erabateko arrakasta izan zuen.

Leire San José

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko, eraikin klasiko)

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko Bizkaiko ordezkariartzako Zuzendaritza Batzarrak Ekonomia eta Enpresa Fakultatea hautatu zuten (Sarriko, eraikin klasiko) Docomomo bereizgarria jasotzeko, eraikin horrek Mugimendu Modernoaren erakusgarri gisa duen garrantziagatik.



Plaka urriaren 2an jarri zen, Arkitekturen Nazioarteko Egunean. Eraikinaren proiektua Jesús Rafael Basterretxea arkitektoak egin zuen bere garaian (1961-1963).



Uztailean, Donostian bildu zen UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanotza taldea, 2016/17 ikasturtea amaitu eta 2017/18 ikasturtea hasteko.



Demetrio Merinok, Fakultate honetako Administrazio eta Zerbitzuetako langileak, Bilboko Rimbombín jatetxean jarri du erakusgai bere obra. Merino 1988. urtetik da UPV/EHUko langilea, eta Felix Aguirre Akademian jaso zuen prestakuntza.



Sara de la Rica, OCDEk Singapurren eginiko PIAAC Inter- national Conference- ko hizlari gonbidatua

Sara de la Rica Ekonomia Analisaren Oinarriak II Saileko irakasleak hitzaldi bat eman zuen OCDEren 4th PIAAC International Conference ekitaldian gonbidatu gisa. Ekitaldia azaroaren 21etik 23ra egin zen, Singapurren. Oraingo honetan, Workshoparen ardatza genero arrakalen analisi empirikoa izan zen, PIAAC-en (Programme International Assessment Adult Competences) datu basea erabiliz eginikoa. Datu base hori OCDEk berak egiten du, eta oso erabilgarria da OCDEko 40 herrialdeetan baino gehiagotan dauden genero arrakalen ezagutzan aurrera egiteko.

"From Gender Gaps in Skills to Gender Gaps in Wages" izenburua zuen Sara de la Ricak aurkeztutako hitzaldiak. De la Ricaren lanaren oinarriko emaitzak bere webgunean egongo dira eskuragarri aurki. Emaitza horien arabera, lan merkatuan sartzean desagertu egiten dira 15 urteko neskek mutilen aldean irakurtzeko eta idazteko gaitasunetan dituzten abantaila kognitiboak. Bestalde, 15 urterekin gaitasun numerikoetan dituzten desabantailak nabarmen areagotzen dira lan merkatuan sartzeko adinera iristerako. Gainera, desabantaila hori erabat lotuta dago soldaten genero arrakalarekin. Horren ondorioz, lan merkatuko genero arrakalak murrizteko, ezinbestekoa da emakumeek gaitasun numerikoetan dituzten desabantailak gazte-gaztetan helteza, lan merkatuan sartu baino askoz ere lehenago.



EKONOMIALARIEN GAITASUN PROFESIONALEN EGUNGO EGOERARI ETA JOEREI buruzko ikerketaren aurkezpena, urriaren 20an, Bizkaia Aretoan

Enplegu emaitzek ekonomialari berriei zein gaitasun eskatzen dizkieten eta titulazio berrietan zein gaitasun eskuratu beharko lirakekeen detektatzea da ikerketa horren helburua. UPV/EHUko Enpresa Institutuko Jon Charterina, Julián Pando eta Iñaki Periañez irakasleek egin dute lana, eta Ekonomisten Euskal Elkargoak finantzatu du, honako hauekin elkarlanean: Consejo General de Colegios de Economistas eta FESIDE (Fundación Emilio Soldevilla para la Investigación y Desarrollo de la Economía de la Empresa).

Jarduera profesionalaren hainbat arlo aztertuta, ikerketak hautematen du zein diren gaur egun prestakuntzan dauden hutsuneak eta ekonomialarien zein profil eskatzen diren etorkizunerako sektoreka, edo zein gaitasun egiaztatu beharko dituzten. Era berean, asmoa da ikerketa hau ekonomialariek beren lana egiteko eskura eduki dezaten tresna bat izatea, eta prestakuntza zentroei informazioa ematea beren prestakuntza planak eta edukiak sare ekonomiko eta sozialaren beharretara egokitu ahal izan ditzaten.

Ikerketaren lehenengo fasean, elkarriketak eta World Cafe formatuko zenbait dinamika egin zituzten giza baliabideetako eta langile hautaketaren munduko profesionalekin. Zati kuantitatiboan, ikerketaren helburu ziren herritarren lagin adierazgarri bat erabili zen, telefonozko inkesta bat eginez. Denera, 401 elkarriketa baliagarri egin ziren.

Ikerketaren ondorioen artean, nabarmendu genezake XXI. mendean honako gaitasun hauek eskatuko zaizkiela ekonomialariei: diziiplina askotako ikuspegi izatea arazoei heltzeko eta horiek konpontzeko orduan, taldean lan egiteko gaitasuna, hainbat hizkuntzatan ahoz zein idatziz erraz moldatzeko gaitasuna eta baikorrak eta positiboak izatea. Horrez gain, printzipio etikoak dituzten pertsonak nahiko dira, eta zintotasun, konpromiso, ardura eta heldutasun handia dutenak.

Gainera, epe laburrera begira, etengabe ikasteko gaitasuna duten pertsonak eskatuko dira, modu autonomoan eta proiektuak lan egiten duten ekintzailak. Kontuan hartuko da, era berean,


digitalizazioari, webguneei eta Interneti buruzko ezagutza izatea.

IKTen erabilerari dagokionez, bezeroen zein enpresako langileen datu pertsonalak kontuz erabiltzen dituzten pertsonak nahi dira, informazioaren interesa ebaluatzeko gai direnak, kanal digitalak behar bezala erabiltzen dakitenak (blogak, sare sozialak...), enpresaren interesak errespetatuz, eta teknologia berrien bitartez informazioa eta edukia trukatzeko gai direnak.

Ikastetxeak direla eta, komeniko litzateke ekonomialarientzako garrantzitsuek diren gaitasun jakin batzuetarako material espezifikoak sortzea, hala nola IKTen eta sare sozialen inguruko ezagutzari edo marketin digitalari buruzkoa. Horrez gain, egokia izango litzateke beste gaitasun batzuk zeharka planteatzea, besteak beste Exceli buruzko ezagutza, eta ofizialak ez diren hizkuntzak ikastea (ingelesa bereziki).

Iñaki Periañez
Ikerketaren zuzendaria





4 Ikasiker beka Fakultateko ikasleentzat

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Imanol Lizarraga, Ander Fernández, Mikel Olalde eta Iker Fonseca ikasleek Euskal Unibertsitate Sistemako ikerketa taldeekin aritzeko Eusko Jaurlaritzaren Ikasiker beketako bat lortu dute. Ikasleok MACLAB (MACroeconomics and LABour) eta BIRE (Bilbao Research Economics) ikerketa taldeekin esku hartuko dute; bi taldeak Ekonomia Analiaren Oinarriak II eta Ekonomia Aplikatua III (Ekonometria eta Estatistika) sailletako ikertzaileek osatzen dituzte. MACLAB taldea 19 ikertzaileek osatzen dute eta Jesús Vázquez irakasleak zuzentzen du, eta Makroekonomian, Lan Merkaturan, Baliabide Naturalen, Kulturaren eta Finantzen ikertzen du. BIRE taldea, bestalde, Javier Gardeazabal irakasleak zuzentzen du eta 13 ikertzaileek osatzen dute, eta ekonomia esperimentalen eta jokabidearen ekonomian, inferentzia kausalean, gatazken

ekonomian, energia merkatuetan eta industria antolakuntzan ikertzen du.

Imanol Lizarraga, Ekonomia Gradu 4. mailako ikaslea, Sara de la Rica irakaslearekin arituko da Bizkaiko Foru Aldundiak orain gutxi hartu dituen zenbait laneratzeko neurriek nolako inpaktu ekonomiko eta soziala izan duten aztertzen. Ander Fernándezek, Ekonomia Gradu 4. mailako ikaslea hura ere, Miguel Angel Martinez Sedano irakasleari lagunduko dio Morningstar Direct datu basean oinarrituta inbertsio funtsen datu base bat sortzen. Bestalde, Mikel Olalde eta Iker Fonsecak, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradu 3. mailako ikasleek, Susan Orbe eta María José Gutiérrez irakasleekin jardungo dute osasunaren baldintzatzaile sozioekonomikoak aztertzen, Osasun Inkesta Nazionalako datuez baliatuta.

Sarrikoko ikasleak infernura joan dira bisitan!

Sarrikoko ikasle ugari Etorkizularen izan ziren, hots, lan etorkizulari buruzko antzezlan interaktiboan. Han, zerua eta infernua bisitatu zituzten, eta hala besteen

konturako lana nola autoenplegua erakusten zituzten zenbait egoera antzeztu.

Informazio gehiago: <https://etorkizulan.com/>



Gure lankide Vicente Núñez "Statistical Modelling" aldizkariako editore izendatu dute (<https://uk.sagepub.com/en-gb/eur/journal/statistical-modelling#editorial-board>).



Iraunkortasuna

Ekologiaren, ekonomiaren eta berdintasunaren tratua

Ralp Bicknese

Ekoskan: Ingurumen Hobekuntzarako



Sarrikoko Marketin Gradu talde bat **Basque Ecodesign Meeting 2017 foroan** izan da, European Ekonomia Zirkularren eredu nola ezarri eztabaidatzen. Informazio gehiago: <http://bem2017.basquecodesigncenter.net/eu/hasiera/>



Enpresa Zuzendaritza Berrikuntzaren eta Internazionalizazioaren Ikuspegitik Masterra ixteko ekitaldia: joan den urriaren 2an, Bizkaia Aretoko Arriaga gelan, master horren 16/17ko edizioa ixteko eta 17/18koa hasteko ekitaldia izan zen. Arturo Rodríguez Castellanos irakasle doktoreak eman zuen hasierako hitzaldia, globalizazioari, zalantzei eta finantza krisiei buruzkoa.



Europaren etorkizunari buruzko eztabaida

Azaroaren 24an, gure Fakultateko areto nagusian, Europaren etorkizunari buruz eztabaidatu zen gure Unibertsitateko Europar Dokumentazio Gunearekin batera.

Europako Batzordeko hiru goi funtzionariok parte hartu zuten: Eneko Landaburuk, Eskualde Politikako zuzendari nagusiak; Mikel Landabasok, Estrategia eta Komunikazio Instituzionaleko zuzendariak; eta Antonio de Leceak, Ekonomia eta Finantza Gaietako zuzendari nagusiaren aholkulariak (azken bi horiek



gure Fakultateari lotuta daude), baita Alde Enrique Calvet eurodiputatuak ere, denak ere EBren historiaren, erakundeen eta funtzionamenduaren gaineko ezagutza handikoak. Gure Fakultateko dekanok Jon Barrutia aritu zen eztabaida

moderatzen. Europar Batasunak dituen erronkak izan zituzten aztergai: erronka politikoak, ekonomikoak, geure burua mundu globalizatu batean kokatzekoak eta Batasunaren balioetan sakontzeak. Eztabaidak denetariko entzuleen

interesa piztu zuen; han izan ziren, gure Unibertsitateko irakasle eta ikasleez gain, gizarte zibileko kideak ere, galderak egiten. Jardunaldia interes handikoa izan zen, eta etorkizun hurbilean berriro egin ahal izatea espero dugu.

Gizarteko eraldaketak: nola ikertu, nola ulertu hobeto. Kulturaren Ekonomiaren ekarpena



“Europa mundu aldakor batean: gizarte inklusiboak, berritzaileak eta gogoeta-zaleak” izena jarri dio Europako Batzordeak bere Horizonte 2020 programan identifikatu duen seigarren gizarte erronkari. Izenburu horrek esan nahi du, hain zuzen ere, gizarte zientzietako ikerketak hobeto ulertu behar dituela Europako gizartearen aldaketak, horiek gizarte kohesioan dituzten ondorioak, gizartearen garapena eta politika berritzaileak, eta lagundu egin behar duela Europaren oinarri intelektuala ulertzen (ondarea eta identitateak), bizitza komunerako inspirazio iturri gisa. Erronka

horri aurre egiten laguntzen duten ekonomia arloetako bat Kulturaren Ekonomia da.

Termino horrek bi ekarpen lerro bereiziri egiten die erreferentzia. Lehen lerroan sartzen da kulturak balio, sinesmen eta arau sozial gisa pertsonen erabaki ekonomikoetan daukan eragina, baita kulturak esfera pertsonal eta kolektiboan dituen ondorioak ere. Bigarren lerroak, berriz, arteak eta kultura jarduerak ekonomikoko sektore gisa aztertzen zituen hasieran, eta orain, ikerketa eremua zabalduz, aztertzen du kultur ondasunek

eta kultur eta sormen industriek nola laguntzen duten pertsonen eta gizartearen garapenean. Teknologia disruptiboek aldatu egiten dituzte ondasun eta erakunde kultural horien ezaugarriak, guk ondasunok eskuratzeko eta partekatzeko dugun modua, eta kulturaren eta sormenaren sektoreko negozio ereduak. Sarritan zaila izaten da teknologia aldaketa horrek gure herritar bizimoduan dituen eraginak aztertzea eta ulertzea. Gizarte erronka gero eta konplexuagoak daudenez, litekeena da herritarrek zailtasunak izatea informazio iturri fidagarriak aurkitzeko, gertatzen ari denari buruzko balorazioa egiteko edota aldaketa horiek beren bizitzan nola eragiten duten ulertzeko. Horregatik, gero eta garrantzitsuagoa da guk unibertsitatean egiten dugun ikerlanak aldaketa eragitea alde batetik herritarrengan eta bestetik politika publikoak diseinatu eta bideratzen dituztenengan.

Ekonomia Analisiaren Oinarriak II Sailak erabaki zuen ekonomiaren esparru hori jorratzea, Master in Economics: Empirical Analysis and Policies masterreko ikasketa planean Cultural Economics irakasgaia gehituta. Victoria Ateca doktoreak, zeinak arlo horretan ikertzen baitu, 2014-15etik aurrerako irakasgaiko curriculum prestatu du eta goi horrekin lotutako gradu eta master amaierako lanak zuzendu ditu.

Halaber, Ateca doktoreak beste erakunde batzuekin lan egiten du ezagutza gizarteari transferitzeko helburuz. Hala, duela gutxi, Aholku Batzordeko Kultura arloko kide gisa, La Caixa Fundazioaren Gizarte Behatokia egiten esku hartu du. Behatokiak gizarte inklusioa, hezkuntza, zientzia eta kultura ikertzen ditu eta gizarteko joera eta fenomenoi buruzko analisia egiten du, ebidentzietan oinarrituta eta estatistiketan, elkarriketen, artikuluen eta liburu erreseinan bidez ikertzaileen ahotsa jasota. Zehazki, kulturari buruzko 2017ko abenduko txostenak aztergai ditu partaidetza kulturala, Espainian dauden oztopoak eta kulturaren eta norbere ongizatearen arteko lotura.

Behatokia ez da gizarte zientzietako komunikazio proiektu hutsa; unibertsitateko komunitateari mesede egiteko ere diseinatu da. Alde batetik, baliabide didaktiko egokia izan daiteke, Barometroaren atalak batik batik; izan ere, informazio estatistikoaren iturri fidagarrietatik eratorritako adierazleak ematen dituzte, eta, gainera, gure ikasleen gradu eta master amaierako lanetarako inspirazio izan daitezke. Bestetik, gazte ikertzaileei bultzada emateko asmoz, doktore gazteek behatokiaren arloetan egin dituzten ekarpen garrantzitsuenak identifikatzeko ikerketa sari baten lehen deialdia atertu da.

